

itsasondo^{2.0}

Herriko aldizkaria (((6. zk))) iraila-azaroa 2009



Iraileko jaiak



Iraila: ikasturte berriaren erronkak

Jose Ignacio Rosco txirrindulari amorratua
Baliarraingo ibilbidea
Kultur agenda



Oporrak amaituta, partaidetzaz beteriko udazkena datorkigu

Herritar agurgarriok,

Orailarekin batera, gauza asko etortzen zaizkigu burura. Gutako askori oporrak bukatu, eta lanera itzultzeko ordua iritsi zaigu. Oroitzapen onez hasi gara, behintzat, eta askok sentitzen duten opor geroko depresioa alde batera utzi dugu, egunerokoari hasiera emateko.

Oraindik egin ez dutenei, opor zoriontsuak opa dizkizuegu hemendik.

Burura datorkigu Itsasondoko haur guztiak ere, jada, eskolan hasiak direla, eta, aurretik urte luze bat dutela berriro ere hondartza eta udako jolasez gozatu ahal izateko. Espero dugu ikasturte hau ondo igarotzea eta inongo arazorik gabe hasi eta bukatzea.

Herritar guztiok, berriro, ongi etorriak zarete herrira, eta gogoratu, Itsasondon iraila hilabete handia dela, festak berriz ere gainean ditugu eta urtetik urtera hobetzeko asmotan aldizkari honen erdialdean jaien egitaraua ipini dugu. Ostiraletik igandearaino hiru egun luze izango ditugu udaletxe eta herritarren artean proposatutako ekitaldietan parte hartzeko. Ea eguraldiak laguntzen digun eta urtero bezala herriko plaza betetzen dugun guztion zorionerako.

Gogoratu nahi ditugu oraindik ere jaiez goza ezin izango dutenak badi-rela gure herrian.

Momentu latzak datoz, krisi ekonomikoa alde batetik, A gripea bestetik, baina honen guztiaren gainera Estatu Espainiarrak aurrera daraman politika errepresiboa aipatu behar dugu. Hitz egiteko eta adierazteko askatasunak zalantzan jarriak dira Gobernu zentraletik, eta Euskal herrian dituzten polizia desberdinen laguntzari esker, euskaldunok zapalduak sentitzen ari gara, inoiz baino gehiago.

Agur bero bat.■





Itsasondorako ze asmo-gogo-ZE PLAN?

Datozen hilabeteetan Agenda 21aren Ekintza-Planaren berrikuspena egitea dagokigu. 2005ean egin bezala zuen partehartzea ezinbestekoa da azterketa hau egin ahal izateko. Aurrerapen gisa eta motorrak berotzen hasteko ondorengo artikulua duzue. Ikusiko duzuenek gai asko eta oso desberdinak jorratzen dira, norberak jakingo du non kokatu bere burua etorkizunerako proposatzen diren erronketan.

Badira hilabete batzu udala dokumentu bat lantzen ari dela; bertan herriarentzat hurrengo urteetako erronkak izango direnak aztertzen dira.

Honetarako Urrian zuen etxeetan ale berezi bat jasoko duzute, informazio gehiagorekin. Bertan 2005etik, onartutako ekintza planean garatzen joan diren ekintzetatik abiatuta zer egin den aztertu eta datozen urteetan zer eta nola egin daitekeen zehazteko lanak martxan jarri behar ditugu. 2005etik, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak burutzen duen Ebaluazio Programa baten arabera, Ekintza-Planaren garapen maila %45eakoa izan da 2008an. 2005eko Ekintza planean onartutako ekintza guztietatik (71) 7 bakarrik daude oraindik hasteko.

Honekin batera herri mailan egindako herri lanak kontuan hartu eta herritar bezala, kezka sortarazten dizuten gaien etorkizuna eta egin beharrekoak zehaztu eta jaso nahi dira. Oraingoan, Plangintza berria landu eta plangintza honen arabera udal funtzionamendua finkatzea tokatzen da. Landuko diren gaiak ondorengoak dira:

1. Ongizatea
 - 1.gaia: berdintasuna
 - 2.gaia: gazteak
 - 3.gaia: ongizatea
 - 4.gaia: etorkinak
2. Herri dinamika/ herri-bizitza
 - 5.gaia: kultura
 - 6.gaia: euskara
 7. gaia: kirola

3. Ingurumena eta Lurralde Antolamendua

- 8.gaia: etxebizitza eta industria
- 9.gaia: mugikortasuna eta irisgarritasuna
- 10.gaia: natur ondarea
- 11.gaia: ingurumen sektoreak: ura, hondakinak eta energia
- 12.gaia: landa eremua

4. Udal kudeaketa

- 13.gaia: udalean ingurumen irizpideak udal kudeaketan
- 14.gaia: parte-hartzea
- 15.gaia: komunikazioa
- 16.gaia: udal antolamendua

BESTE ZENBAIT GAI

- 17.gaia. hezkuntza
- 18.gaia: 3. adina
- 19.gaia: mantenua
20. gaia: aisia

Aipatu bezala udazken aldera ekarpenak jasotzeko bilerak antolatuko dira. Honela urtea bukatzerako gaur egun herriari baliagarria izango zaion plangintza esku artean izango dugu.

Hau burutzeko zure parte hartzea beharrezkoa dugu. Beraz, bertaratu zaitetz udalak martxan jarriko dituen bilera edo lan taldeetara. Parte hartzea eskubidea baino gehiago da eta ezinbestekoak diren zure ekarpenak jasoko ditugulakoan, gero arte! ■



2010. urterako udal aurrekontuaren aurreikuspena

Aurreko alean, atal honetan proiektu asko ziren mahai gainean zeudenak. Gehienak martxan daudenez, orain, datorren urterako erronka berriei eta finantziario iturri posibleei dagokie txanda. Krisi garaian ez baita erraza helburuak betetzea.

Hurrengo hilabeteen 2010. urteko aurrekontua prestatzeko lanei ekingo zaio. Aurrekontuan udalak dituen hainbat proiektu gauzatzeko gastuak eta horiek finantzatzeko sarrerak izendatuko dira.

Bizi dugun krisi egoera honetan, udalek aurrera begira dituzten proiektuak gauzatzen jarraitzea oso garrantzitsua da, obra eta zerbitzuekin zerikusi handia duten zenbait sektoreri lana ematen zaiolako eta langabezia dauden langileak lan mundura txertatzeko ahaleginak egiten direlako.

Helburu horiek betetzeko oztopo garrantzitsu bat, krisi egoeraren eraginez, Aldundiak udalei ematen dizkien aportazioak gutxitzearekin etorri da. 2008. urtean egindako aurreikuspenak ez ziren bete, eta Itsasondoko Udalak behar baino aportazio gehiago jaso zuen eta kopuru hori bi urtetan (2009 eta 2010ean) itzuli beharko da (52.288 €). Aurten ere egoera antzekoa izango da, Aldundiak zerga bidez lortzen duen errekaudazioa %20an gutxituko dela aurreikusten delako. Datu horiek kontuan izan beharko dira 2010eko aurrekontua egiterakoan.

Ahal den neurrian udala ez zorpetzea da asmoa. Egun, udalak 2002. urtean eskatutako mailegua besterik ez du, zorpetze maila %5a baino txikiagoa izanik. Beraz, esan genezake udalaren egoera ekonomikoa ez dela hain txarra, baina ez da baztertzeko mailegu berriak izenpetzeko beharra.

Behar hori udalak proiektuak gauzatzeko lortzen dituen diru-laguntzen kopuruak neurtuko du. Horregatik, mailegu berrien beharrik ez izan arren, proiektuak finantzatzeko laguntzak lortzeko ahaleginak egiten jarraitzea da udalaren asmoa.

Besteak beste azken hilabeteen honako ekintzetarako laguntzak lortu dira:

- Gaztetxea egokitzeko obra: 30.026,84 €ko aurrekontutik 10.402,63 €ko laguntza lortu da.
- Multimedia gela jartzeko: 25.575,36 €ko aurrekontutik 19.302,75 €ko laguntza lortu da.
- Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia gauzatzeko: 6.911,25 €ko laguntza emango du Hizkuntza Politikako

Sailburuordetzak, besteak beste, Familia transmisiorako, etorri berriak euskara hurbiltzeko egitasmorako, euskalduntze alfabetatzea sustatzeko, umeentzako aisia euskararen presentzia bermatzeko, udaleko erabilera plana gauzatzeko laguntzeko...

- Beitiako eta Goiko kaleko urbanizazio obretarako, berriz, Foru Aldundiko Mugikortasun Sailak 171.878,25 €ko laguntza eman du. Horren ondorioz, udalak egin beharreko ekarpena askoz txikiagoa izango da.

Uztailaren 27an egindako udal osoko bilkuran, Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro Sailak egindako deialdiaren arabera, diru-laguntzak eskatu dira honako hauetarako:

- Kaleak garbitzeko makina erosteko, Itsasondoko Ingurune Naturalaren eta Landa eremuaren kontserbaziorako ekimenak II fasea deritzon proiektua gauzatzeko eta Goiko Kaleko urbanizazio obren beste zati bat finantzatzeko.

Diru-laguntza berrien deialdiak egiten diren heinean, eskaera gehiago egiten jarraitzeko asmoa dago. ■

“Euskal Y”: hausnarketa sakona egiteko unea

Frantzia eta Portugalgo gobernuek Abiadura Handiko Trenaren linea berriak eraikitzeke zalantzak dauzkaten bitartean, Europako Sarea hankaz gora jarritz, Eusko Jaurlaritzak eta Sustapen Ministeritzak azpiegiturarekin jarraitzen duteitsu-itsu, nahiz eta onartu merkantzientzako ez dela baliagarria. Non geratzen dira azpiegitura justifikatzeko orain arte izan diren argudio nagusiak?... Merkantziak eta Europa...

Frantziako Gobernuak, Ipar Euskal Herrian, Abiadura Handiko linea berriaren eraikuntza-proiektua gelditzea erabaki du. Horrek, zuzenean “euskal Y”ari eragiteaz gain, Dax-Gasteiz AHTren errentagarritasun sozio-ekonomiko ezaren inguruko itzal eta galderak areagotu ditu. Erabaki horren bueltan, honakoak azpimarratu beharko genituzke:

a) Bordele-Irun AHT proiektuaren inguruan egindako peritu-txosten suitzarrak merkantzia-trafikoaren aurreikuspen **puztuak** eta jada badagoen trenbide-sarearen ahalmenari buruzko aurreikuspen **baxuak gezurtatu** zituen.

b) Frantziako Kontu Epaitegiaren 2008ko txostenak trenbide-sare konbentzionalak hobetzearen aldeko apustua egin zuen, **AHT azpiegitura berriak albo batera** utziz, Abiadura Handiko proiektuaren errentagarritasun sozio-ekonomikoaren tasa izugarri jaitsi zela eta, **eraikuntza-kostuen gorakadagatik** (batez beste % 45eko igoera aurreikusitakotik) eta **trafiko eta erabiltzaileen beherakadagatik**.

c) Europako Batzordeak 2008an AHTri buruz egin zuen txostena (Davignon txostena) oso gogorra izan zen “euskal Y”aren diseinuak “batez ere **eskualde-arteke bidaiarien garraioa egiteko joera baitu, nazioarteko merkantzia-garraiorako leku gutxi utziz**”.

Horrek guztiak AHTren proiektuarekiko aurkakotasun zabala ekarri du. Finantzio-arazoak nabarmen geratu dira: Frantziako Gobernuak udal eta eskualde-instituzioei exijitu zien Tours-Bordele-Irun AHT proiektuaren 11.000 milioi euroko kostuaren % 25 aurreratzea.

Bestalde, kontuan izan behar da ez direla Abiadura Handiko Trenak eraikitzea zalantzan jartzen duten bakarrak; Portugalen ere ekonomista ezagunek bertan egin nahi den proiektuaren burugabekeria salatu baitute. Beren hitzetan, proiektu horiek “katastrofiakoak izan daitezke herrialdearentzat, beren meritua ez baita behar bezala egiaztatu ikerketa fidagarrien bidez”. Gainera, Portugalgo hainbat alderdi politikok sala-



“Aztertu eta gero, pentsatzen dut hiru minutu irabazteko ehunka miloi gastatzea ez dagoela justifikatua”

Michelle Alliot-Marie

Frantziako Barne ministroa (2009ko urtarrilaren 20an)

tzen dutenez, “ondorengo belaunaldiak hipoteka ditzakeen proiektua” ez da nahikoa eztabaidatu.

Azkenik, Iparraldean proiektua gelditzeak zuzenean eragiten dio hasieratik maila transeupar gisa saldu ziguten Dax-Gasteiz Abiadura Handiko proiektuari. Hala ere, badirudi Eusko Jaurlaritza eta Sustapen Ministerioarentzat, muturren aurrean izanda ere, administrazio frantsesek onartu duten errealitate sozio-ekonomikoa ikusgaitz izateaz gain, gogoetara bultzaraziko dituen elementua ere ez dela, AHTaren eraikuntzalanekin jarraitzeko borondate itsua adierazten baitute, ekonomia, gizartea edo ingurumena oinarri izan ditzakeen arrazoi ororen gainetik. Datuak oso esanguratsuak dira: egun, **Europar egiten ari diren AHTko lanen % 64 Estatu espainiarrean kon-**

tzentratzen dira; 2020an, Estatuak aurreikositako planak burutzen badira, Estatu espainiarrak kontinente osoko Abiadura Handiko km guztien erdia pilatuko ditu eta mundu-mailan **Abiadura Handiko km gehien izango dituen estatu** bihurtuko da. Horrek guztiak gogoeta sakonera bultzatu beharko lituzke bai Sustapen Ministerioa, bai Eusko Jaurlaritza; baina, badirudi gogoeta egiteko unea ez dela inoiz iristen.■

Informazio gehiago:

www.ahtgelditu.org

www.blogak.com/goierrikoahtez

<http://lsindominio.net/ahtez>





3. Ibilbidea

Baliarraingo ibilbidea

Iraupena: 3 ordu 30 minutu

Ibilbidea:

Itsasondo-Bengoetxea: 10', Bengoetxea-Altzagarate: 60',
Altzagarate-San Juan iturria: 5', San Juan Iturri-Baliarrain: 30',
Baliarrain-Eredu: 20', Eredu-Itsasondo: 45'.

Gaur Altzagarate igotzeko, asfaltoa utziko dugu eta mendiz joango gara. RENFEko geltokitik abiatuta, gasolindegirantz, PR-GI 1en marka txuri-horiak jarraituz. Bengoetxen, Sorabil eta Rezola baserrien ondotik pasatuko gara. Altzagaraterainoko bidea aldapatsua da, ez digu lasaitzeko betarik emango, beraz, pazientziarekin hartu.

Behin Altzagaraten, San Juan Iturrira-Abalizelai doan PR-GI 29 ibilbidea jarraituko dugu. Zati horretan, zenbait panel informatibo ikusteko aukera izango duzue, informazio desberdina eta oso interesgarria. San Juan Iturri gure egarria asetzearekin batera inguruaz gozatzeko aprobetxatu dezakegu. Ederra da ezta?.


SG-GI14, marka txuri-berdeak jarraituz, Baliarrainera iritsiko gara. Hemen, asfaltora bueltatu, eta beheara Oriako bailara ez dago urruti. Eredu enpresa parean Oria ibaia zeharkatu eta Itsasondoraino ekarriko zaituzten bidegorrian sartuko gara.■



Kanpos Enea



Bengoetxea 02



Sorabil Baserria 03



04 Rezola Baserria




Altzagaratera inguratzen 05



06 Altzagarate



07 Abali zelai



08 San Juan iturria



09 Abali behekoa baserria



Baliarrain 10



Ibiur 11

Jose Ignacio Rosco

Paris-Brest-Paris

Atal berri hau irekitzen dugu herrian ditugun pertsonaien berri emateko, munduan zehar ibili eta kontaira berezi batenbat duten jendearen berri emateko.

Kaixo Rosco. Beno, kontaiguzu noiztik duzun Paris-Brest-Paris proba buruan?

Beti izan naiz bizikleta amorratua, astean zehar beti bueltaren bat ematen dut baina proba honen berri lanean izan nuen.

Nik CAFen lan egiten nuen garaian, banuen lankide bat nahiko amorratua zena eta berak aipatu zidan bazegoela proba izugarri polit bat Frantzi iparraldean. Proba nolakoa zen kontatu zidanean, argi nuen nik ere egin behar nuela, horregatik hasi nintzen prestatzen, bestelako proba motzago baztuetan parte hartuz.

Zein izan zen probaren momenturik latzena?

Dudarik gabe lasterketa uztea oso zaila egin zitzaidan. Malkoren bat ere bota bai nuen, baina, beste parte-hartzaileekin hitz egin eta gero, denak ados gaude gauzez txirrinduan ibiltzea luze eta arriskutsu bilakatzen dela. Hala ere, talde bat osatzen duzunean, denen argiek bidea argitzen dute eta lasaia ibiltzen gara.

Nola darama zure familiak, aita abentura zale bat edukitzea?

Beno, ni beti izan naiz horrelakoa, eta nik uste dut ondo daramatela. Nire emaztea eta orain nire semea, ni noan leku guztietara joaten saiatzen dira. Beraien laguntzarik gabe ezin izango nuke horrelako probatan jarraitu, laguntza handia ematen didate, bai janaria emanez eta bai moralki laguntza emanez.

Zerk harritu zintuen gehien proba antolakuntza mailan?

Denak. Ikusgarria da benetan honelako proba bat antolatzeko behar den lankidetzaz, baina ikusgarriagoa oraindik, frantsesek duten esperientzia hain zaila den proba bat arrakastatsu bilakatzen. Sentsazioa nuen inguruko jende guztiak parte hartzen zuela. Herri batzuetan, adibidez, txaranga batek ongi etorria eman zigun.

Lehen elkarrizketa honetan Jose Ignacio Rosco-rekin topatu gara eta txirrindula amorratu honekin abuztuko arratsalde baten geratu gara, bero egiten zuen eta Roscoren kontakizuna entzun ahal izateko liburutegian sartu ginen.

Rosco Itsasondon bizi den Ordiziarra dugu eta Europa mailan Paris-Brest-Paris izeneko txirrindula proba baten berri eman nahi digu, izena aipatu orduko nabaritzen dugu Jose Ignacioren begietan dizdira berezi bat, pozik jartzen da eta segituan hasten zaigu bere esperientziaren xehetasun guztiak ematen.

1200 kilometroko proba omen da, Parisen hasi eta britainiako Brest herritik pasa eta gero berriz Parisen bukatzen den txirrindula proba, mundu osoko partaideak biltzen omen dira eta harridura haundiarekin entzuten diogu aipatzen digularik kilometro guzti horiek jarraian egin behar direla.

Lo egiteko momenturik ez dago ia ia, eta telefono kabina batean bi japoniar ere ikusi zituen Roscok, normalean familiakideak atzetik doazenez kotxeetan eta autokarabanetan deskantsu egiten dute gehienek.

J. Igancio Rosco 35 urteko ordiziarra da bainan Itsasondon bizi da. 1200 kilometro ditu aurrean eta oraindik barre egiteko gogoarekin azaltzen zaigu.





Ordu erdiro 600 pertsonako taldeak irtetzen dira
6500 pertsona atera arte

Guk galdetzen diogu segituan nola bukatu zuen proba eta esaldia bukatu aurretik bere begietan ezintasun bat nabariotzen diogu, Roscok ezin izan zuen proba bukatu eta izugarritzko pena du, hala ere komentatzen digu hurrengo urtean berriz saiaturiko dela eta jadanik prestatzen ari dela oraingoan bidaia arrakastatsua izan dadin.

Roscok hilabete bat lehenago Burdeos-en egin zuen betse 600 kilometroko proba bat eta handik anketan ukituta bueltatu zen, gehiegi fortzatu eta Pariseko probara ez zela egoera fisiko onenean iritxi.

Begibistakoa da proba gauzez ere igarotzen dela, eta 6500 pertsonen parte hartzea ikusgarria da denek beraien argiak piztu eta bidea argitzen dutelarik. Gehienez 90 ordu eman dezakete proba bukatzeko, hala ere zoriontzekoa da proba bukatzea. Trafikoa zeharo mozten dute bideko puntu batzutan eta herri partaidetza oso haundia da, herrietatik pasatzerakoan jendeak animatu eta janari edariak eskeintzea gauza normala da.

Oilo ipurdia jartzen zait oraindik gauzez herrietatik jendearen txaloak gogoratzean.

Aurten Holanda eta Belgica arteko proba egin du Roscok eta sentsazio onarekin itzuli da, honek esperantzak ematen dizkio hurrengo urtean 1200 kilometroak burutzeko.

Hemendik zorte on!■



Ikusgarria! 85 urteko agure batek ere
karrera bukatu zuen, lehenengo ediziotik etortzen da



Gauean denek beraien linternak piztu eta ibilbidea jarraitzen dute



Itsasondoko gazte plana

Martxan gaude!

Joan den ekainetik martxan da Itsasondoko Gaztelekua. Ostiraletan irekitzen dugu, arratsaldeko 5etatik 8etara. Jadanik, dena prest dago eta material guztia bertan dago: futbolina, bi ordenagailu, taillerretako materiala, mahai-jolasak, aldizkariak...Eta hemendik aurrera, poliki-poliki, gazteek beraien gustura apainduko dute lokala.

Abuztuan atseden hartu dugu, baina uztailean, ekintza bereziak egin genituen. Hain zuzen ere, gazte udalekuak antolatu genituen eta 4 ekintza burutu. Alde batetik, Gaztelekuko funtzionamendua nolakoa izango den erabaki genuen, aquariumera arratsalde pasa joan ginen, Gamarrako igerilekuan ere egun pasa ederra egin genuen, eta azkenik, amaiera festa txiki bat egin genuen pintxo hotzen lehiaketa eta guzti. Gazteak oso gustura geratu ziren egindako ekintzekin eta oso balorazio positiboa egiten dugu.

Irailean berriro indarberriturik itzuli gara. Festen ostean irekiko dugu berriro Gaztelekua. Bertan, egunerokotasunetik at, hitzaldiak, ekintzak, tailerrak, irteerak antolatuko ditugu, eta hemendik Gabonetara arte, ekintza bereziak ere izango dira.

Oraindik, hasieran gaude, Gaztelekuak ateak ireki berri ditu eta gazteak eta hezitzaileak elkar ezagutzen ari dira. Hala ere, gazteen buruan, ideia, proiektu, asmo ugari daude, eta gure asmoa denon artean ideia horiek ahal den neurrian aurrera eramatea izango da. Ilusio eta gogoz beterik gaude, eta lerro hauen bidez, gonbitea egin nahi diegu herriko gazteei gurekin parte hartzeko. Badakizue, noiz eta non gauden! Zatoz gurekin GAZTE!!!



emakume berdintasun plana

Ekainak 28 Gay, Lesbiana eta Transexualen Eguna

Ekainaren 28a. Gay, Lesbiana eta Transexualen harrotasunaren eguna da. Egun internazionala dela esatea komenigarria da. Baina ez da harrotasuna eta gay edo lesbiana direla adierazteko eguna bakarrik, aldarrikapen eguna ere bada. Hau da, egun honen inguruan ikusten ditugun hainbat irudi buruarinak baina gehiago da egun hau.

1969. urtean New York-en gertatutakoari esker, edo zoritxarrez, ospatzen da egun hau. Urte horretako ekainaren 27ko gauean New York-ekeko poliziak sarekada (redada) bat antolatu zuen eta, Gay, Lesbiana eta Transexualek aurre egin zieten.

Beraz, egun hau aldarrikapen egun bezala jaio zen 1969. urtean. Gay, Lesbiana eta Transexualen eskubideen aldeko eguna bezala. Urteetan zehar bizi izandako zapalkuntza eta biolentziaren aurkako festa eguna da. Urteetan zehar pertsona asko erahilak edo gizartetik baztertuak izan dira beraien joera sexualak direla eta.

Hainbat eta hainbat hiriburutan ikus daiteke festa honen adierazgarri diren desfileen irudiak, baina Itsasondon bertan ere ospatzen dugu egun hau. Honela 2002. urtetik aurrera urtero ekainaren 28a dela eta udaletxeko balkoian bandera bat jartzen dugu. Gay, Lesbiana eta Transexualen eguna den honekin bat egiteko asmoarekin.

Baina Itsasondoko udalak erabaki hau hartu aurretik. Gehitu eta Hegoak elkarrekin hitzarmena sinatua zeukan. Honela, urte honetatik aurrera izatezko bikoteak udalean inskribatzeko baimena izango dutelarik, besteak beste. Honez gain, kode zibilaren aldaketa bat ere eskatzen da.

Modu honetara Itsasondoko udalak bat egiten du munduan zehar ospatzen den egun honekin, homofobia, lesbofobia eta transfobiari aurre egiteko asmoarekin. Beste ekintza batzuen artean udaleko balkoian bandera hau jartzen da. Egun honekiko herriaren atxikimenduari adierazle bezala.

Ezin gara ahaztu ekainaren 28a Gay, Lesbiana eta Transexualen data hau guztion festa dela. Guztion da, sexualitatea bizitzeko garaian askatasuna eskatzen duen eguna delako. Nahiz eta emakume, gizon edo dena delakoa izan, bakoitzaren sexualitatea askea izan dadin borrokatzen delako egun honetan. Adinaren arabera, eta bereziki sexua-aren arabera, nesken kasuan, sexualitate aske bat izatea zaila da hasteko ez baikaude horretarako ondo heziak.■



Informazio gehiago:

<http://itsasondokoberdintasunsaila.blogspot.com/>

Hizkuntza eskubideen urraketan aurrean jarrera aktiboa hartzeko deia egin du Itsasondoko Udalak

Urrian hasiko da Itsasondoko Hizkuntza eskubideen urraketak salatzen kanpaina. Herriko toki ezberdinetan buzoiak jarriko dira, euskaldunok euskaldun koherente gisa jokatzeko edo jokatu nahi izateko ditugun eskubide urraketak salatzen. Izan ere, oraindik asko dira euskaldunak baztertzen dituzten tokiak eta eragileak: erakunde publiko nahiz pribatuak ez dituzte agiriak euskaraz bidaltzen, ahoz euskaraz hasten gaztelaniaz mintzatzeko eskatzen dute, informazio komertziala gaztelaniaz hutsez bidaltzen dute... Kasu horiek guztiak eta gehiago jasotzeko eta horiei irtenbidea bilatzeko abiatuko du Itsasondoko Udalak UEMA eta hizkuntza eskubideen Behatokiarekin batera "Defenda ditzagun geure eskubideak" kanpaina.

Kexa jartzera joaten denak inprimaki batzuk izango dituzte buzoien ondoan, betetzeko sinple-sinpleak. Nolanahi ere, zailtasunik izanez gero edo argibiderik behar izanez gero, udal langileek beren prestutasun osoa adierazi dute, nahi adinako laguntza emateko. Gainera, udaletxeetara joaterik ez dutenak ere aukera izango dute kexak telefonoz jartzeko. Batetik, UEMAko bulegora dei dezakete (943816699), han biltzen baitira Goierriko kexak. Bestetik, zuzenean Behatokiari jar ditzakete kexak, Euskararen telefonora deituta (902194332).

Kanpaino honi lotuta, urrian Itsasondoko egin asmo den euskararen astea, hizkuntza eskubideen inguruko tailer bat antolatzeko asmoa era badago. Bertan, Hizkuntza eskubideen Behatokiako arduradun Paul Bilbaok, eguneroko gertaeretan oinarritutako tailer praktikoa emango du.

Eskualdeko euskalgintzak ere parte aktiboa izatea lortu nahi da egitasmoan.

Egitasmoa Udalari Euskaldunen Mankomunitatearen eta Hizkuntza Eskubideen Behatokiaren arteko hitzarmenaren ondorioa da. Hitzarmenean, UEMA eta Behatokiak mankomunitateko herritarren kexak bideratzeko konpromisoa hartu zuten.

Egitasmoa urriaren hasieran jarri zen abian UEMAko herri batzuetan, eta dagoeneko arrakasta handia izan du, jasotako kexen kopuruari begira: 200dik gora kexa jaso dira UEMAko herrietan.

Egitasmoa behin abian jarrita, ez du amaiera data zehatzik izango. Hona hemen UEMAko koordinatzaile UEMAko teknikariak esandakoa: "Onena izango litzateke hemendik hila bate batzuetara buzoiak kentzea, horrek esan nahiko duelako euskararen erabateko normalizazioa lortu dela eta ez dagoela euskaldunen hizkuntza eskubideen urraketarik". Egun hori iritsi artean, Itsasondoko udaletako hautetsiek dei egin diete herritarrei buzoiak erabiltzeko eta hizkuntza urraketak salatzen.■



Beraz ospatu zen aurtengo UEMA eguna, ekainaren 13an. Eta zuhaitz bat izan zen UEMA eguneko irudia, zuhaitz horren sustraiek euskara nagusi izango den lurralde tinto eusten diotela irudikatuz.

Gure zuhaitzaren goikoa aldean, kolore eta itxura guztietako irudiak ditugu:

betiko euskaldunak, etorri berri direnak eta euskarara hurbildu nahi dutenak, pausu hori eman eta euskaldundu direnak... Euskararekin bat egingo duen oro hartzen dugu guk UEMAren zuhaitzean, euskara baita elkartzen gaituena.

Aurten UEMA 18 urte bete ditu. Adineaz nagusiak gara, eta ez adineaz bakarrik, azaleraz ere handitu gara. Une honetan ia 61 udalek osatzen dute UEMA. Euskaraz bizitzeko erabakia hartu zuten hasierako udalen kopurua hirukoiztu egin dugu.

Aurten, Nafarroan egin da UEMA eguna, eta 2001. urtean Arbizun. Orduan ere egoera ez zen xamurra. Garai hartan, eskatu genuen 1986ko Nafarroako euskarari buruzko Foru Legea garatzeko ordua zela eta ez murriztekoa. Zortzi urte geroago, orduan bezala, urratsak sendotzeko unea dela eta ez deuseztatzeko diogu. Nafarroako Gobernuari eskatzen diogu dekretua bertan behera utzi eta ofizialtasuna Nafarroa osora zabal dezala.

Nafarroako berezko hizkuntza euskara denez eta udalen zeregin garrantzitsu bat euskararen erabilera normalizatzen denez, aurten, UEMA egunean bildutako horren alde egingen dugu eta horren adierazgarri da azken hilabete hauetan Nafarroatik heldu dela Udalari Euskaldunen Mankomunitatean sartzeko eskaerarik handiena. Araitx, Larraun, Etxalar eta Berako udalekin 12 udal nafar ditugu UEMA. Ia 16.000 lagun nafar euskararen zuhaitzaren adarretan ibiltzeko. Baina ez Nafarroatik bakarrik, Gipuzkoako Elgeta, Zumaia eta Amezketa eta Bizkaiko Busturia ere batu zaizkigu bidelagun. Guztira ia 61 udal biltzen ditu UEMA, baina badira UEMA ez dauden udaletako beste herritar asko eta asko euskaraz bizi nahi dutenak eta horiei ere gure zuhaitzaren adarrak zabalduko dizkiogu, euskara da euskaldunok elkartzen gaituena-eta.■



Heinu bat baino askoz gehiago...

defenda ditzagun geure eskubideak!



SALATU hizkuntza eskubideen URRAKETAKI

Itsasondoko Udalak, UEMA eta Behatokiarekin elkarlanean, hizkuntza eskubideen urraketak salatzen kanpaina jarri du abian.

Helburua herritarrek eguneroko bizimoduaren, irabazteko edo herentzia kexak euskaraz biltzeko aurkitze ditugun eragileekin aurrean, jarrera aktiboa hartu da.

Beraz beraz egiteko ditugun salaketak bidez, urria hurrengo lortzen dira hizkuntza normalizazioa.

Honegatik, Itsasondoko Udalak euskararen lagun izateko eta kanpainak parte hartze garrantzitsua dela.



Zer salatu?

- * Aldeko erabakia ez dago.
- * Erakunde publikoaren gaitortasun erabakia ez dago.
- * Erakunde publiko baten gaitortasun erabakia ez dago.
- * Erakunde publikoaren gaitortasun erabakia ez dago.
- * Erakunde publikoaren gaitortasun erabakia ez dago.
- * Erakunde publikoaren gaitortasun erabakia ez dago.

Non salatu?

- Itsasondoko Udalarekin, Nafarroa eta Euzkadiaren eguneko diru salaketak jasotzeko kutxa.
- Behatokiaren kutxa inprimakiak kutxa ondoan egongo dira.
- Behatokiaren kutxa inprimakiak kutxa ondoan egongo dira.
- Behatokiaren kutxa inprimakiak kutxa ondoan egongo dira.
- Behatokiaren kutxa inprimakiak kutxa ondoan egongo dira.
- Behatokiaren kutxa inprimakiak kutxa ondoan egongo dira.

BIZI-NAI ren berriak

Aukera eman zaigunez, gure berri batzuek azaltzera goaz ondorengo lerroetan.

Inguruko erri batzuetan sortuak ziran ez Jubilatuko Elkarteak, emen ere, izan ziran bearrezko pausoak eman zituzten lagunak eta orrela joan dan uztailan 22 urte ziran BIZI NAI izenarekin ekin zitzaiola lanari.

Urte oietako eginkizunetatik lehengo, gure ibilaldiak aitatuko ditugu. Orain denak gaude prest, nora naia joateko egun bat edo geiago, bañan garai artan oizkoa zan entzutea jubilatuko geientxoek ibilaldi baten berri ematen zitzaionean, "lenago aukera aundik ez degu izan eta oso gustoko ditugu orain ibilaldiak".



Erri txiki bat izateko, uste dugu ibilaldi dexente eratu ditugula batipat autobusen joanda. Orain arte, 82 moldatu ditugu, danak egun batekoak, eta orrela izan gera Gipuzkoatik kanpo, Bizkaian, Araban, Nafarroan, Kantabrian, Burgo- sen, Ipar-Euskalerrin eta Frantzian. Eguraldikin oso suerte ona izan degu eta ibilaldi pare baten izan ezik, bazkarie gustokoa ere. Bein edo bein, bakarren batzuen billa ibilibearra izan degu, arri- tzeak ez denez ezagutzen ez dan toki- tan, bañan oso gutxitan eta gustora sen- titzeko moduan gera. Iñoiz ez degu gal- dutakorik izan. Oñez, berriz, 34 ibilaldi egin ditugu, batzuetan trenez lagunduta edo serbitzuko autobusetan ere bai. Orain autobusa betetzea kosta egiten zaigu bañan izan ziran bigarrena billatu bearreko garaiak eta okerragoa, jun nai- zuten batzu gabe gelditu bearra tokik ez zegoelako.

Urrena, geiena saiatsu gerana, itzaldiak eratzea izan da, batez ere, osasunakin zer ikusia dutenak Zenbait erri aunditan baño entzule geiago izaten direla emen esaten digute eta danak kontentu. Azken urtetan, batzuek beste, lau edo bost izan ditugu urteko. Orain Kutzak eskeintzen dizkigu musutruk eta guk onartu egiten ditugu. Lenago ere bi edo iru izan ditugu urtean, elkarte berak eratuta.



Beste eginkizun bat, Elkatea sortu zane- tik, Jubilatue eguna ospatzea izan da eta geroz ta geiago kosta arren, aldegun arte aurrera eamateko asmo bizia daukagu.

Saiatu gera, Goierriko eta Donostiko elkarteekin baturik, jubilatuentzako gau- zak obetzen, beste batzuen artean ema- kume alargun eta pentsio txikiduenen alde. Batak edo bestek deitutako ibilaldi, batzar eta billeretan ere izan gera.

Orain amaika urte, Kantillape aldiakari- tik egin ziguten galdera batzuk eta oieta- ko bat amar urteko etorkizunari buruz- koa zen. Erantzun gendun berdintsu jarraitze ustea genduela, naiz eta kezka izan gaztek (jubilatueak noski) uzkur xamar zebiltzelako bazkide izateko eta azaltzen gendun, orduan, 33 bazkide zeudela larogei urtetik gorakoak, 50 iru- rogei ta amar larogei artekoak eta 55 gazteagoak.

Tamalez, oraingo egoera okerragoa daukagu; 108 bazkide gera eta oietatik, larogei urtetik gorakoak 38 eta 20 baka- rrik, irurogeita amarrera iritxi ez direnak. Egoera horren aurrean, gure ustez bazki- de izan zitezkeinei, eskutitzez bidali zitzaizen konbite bat, bazkide izan ditez- en eta, benetan mingarria, erantzunik ez degu jaso. Orain amar urte esaten gen- duena errepikaturik, besterik ez bada ere, solidaritzagatik, bazkide egin bearko lira- tekela eta uste orretan jarraitzen degu. ■

Jubilatuen Batzarra



Abuztuko Andra Mari Jaiak

Abuztuari dagokion moduan egun eguzkitsu eta beroa atera zitzaigun abuztuaren 15a. Meza nagusiaren ondorenerako prest zegoen hamaiketako bikaina goiko plazaren inguruan. Gure sukaldariak patata tortilla, txorizo eta haragi egosi pintxo goxoak prestatu zituzten, eta bikain sartu zitzaizkigun ardo eta txakolin freskoaz lagunduta.

Hamaiketakoa girotzen Anjel Mari Peñagarikano eta Millan Telleria bertsolariak izan ziren; saio dibertigarria eta atsegina izan zen. Ondoren, toka txapelketa izan zen. Irabazleak bi lagunentzako afari bikaina eskuratu zuen: on egin diezaiola!

Arratsaldeko 6etan pilota partidak izan ziren. Egiten zuen beroa kontuan izanda, jende askok nahiago izan zuen bero ordu horiek etxeko freskuran igaro, eta beranduxeago sagardo dastatzera azaldu. Bertan, Urbitarte, Aburuza, Zabala, Aulia eta Bereziartua sagardotegietako sagardoak dastatu ahal izan genituen mokadu bat janez. Egiten zuen giroarekin primeran etorri zitzaigun sagardo freskagarria eta gustura egon ginen bertaratu ginen jende mordoska.

Aurtengoz hau izan da dena, datorren urtean gehiago.



Urkiako Jaiak



IRAILAK 12, LARUNBATA

20.00: Jaiei hasiera emateko SUZIRI JAURTIKETA
 21.00: Lagunarteko AFARIA, elkartean
 23.00: LAJA eta MIKEL trikitilariak goizaldera arte

IRAILAK 13, IGANDEA

10.00: MEZA NAGUSIA
 11.00: Hamaiketako OLARTE ANAIAK trikitilariekin
 14.30: BAZKARIA
 18.30: HERRI KIROLAK:
 AIZKOLARIAK: Olasagasti, Arrospide,
 Azurmendi eta Ugarteburu.
 20.00: OLARTE ANAIAK trikitilariak.

IRAILAK 14, ASTELEHENA GURUTZE DEUNAREN EGUNA

11.00: MEZA NAGUSIA
 Ondoren: Hamaiketako Jose Inazio ZUBELDIA
 trikitilariarekin
 14.30: BAZKARIA
 19.00: Erromeria Jose Inazio ZUBELDIA
 trikitilariarekin



Eskola amaiera festa

Ekainaren 20an, ikasturtea amaitu zela ospatzeko, urtero bezala eskola amaiera festa ospatu zen eskolako aterpe itxian. Arratsaldeko 4rak aldera hasi zen festa. Aretoan, Itsasondoko haurrek urtean zehar egindako lan eta eskulanak zeuden ikusgai; benetan lan bikainak egin dituzte gure artista txikiek!

Ondoren, eskolako haurrak taulara igo eta dantza erakustaldia eskaini ziguten. Ikusten da azkenaldian entsaiatutako koreografiak ondo ikasi dituztela. Antzerkiak egiten ere iaioak direla erakutsi ziguten; garbi dago bai txikiek eta bai handiagoeke ere lan eta ilusio asko jarri dutela egun horretako erakustaldian.

Gure artista txikien ondoren, Lanku antzerki taldearen "Galtzagorriei to!! Inaxito" antzezlanaren izen genuen ikusgai. Euskal mitologia eta bertsoak uztartzen ditu emankizun honek eta haur zein helduek une dibertigarria igaro genuen.

Amaitzeko, merendola goxoa izan genuen... Badakizue, indarrak berreskuratzea ezinbestekoa da.



Ordiziako musika eskolako kontzertua



Ekainak 5, ostirala, Andra Mari elizan Ordiziako Musika Eskolako kontzertu-erakustaldia izan genuen. Arratsaldeko 20:00etan hasi zen emanaldia eta bertan 40 lagun elkartu ginen. 15 kantarik osatzen zuten korala eta mota ezberdinetako kantak abestu zituzten; herrikoiak, opera, zartzueta, klasikoak eta modernoak.

Ikuskizunaren amaieran eskolako ikasleek beraien bi irakasle, loreak eskeini zizkieten. Gaueko bederatzieta amaitu zen emanaldia.

San Juan Sua



Ekainaren 23an, urtero legez udarako egun luzeenean, eta aspaldiko usadioei jarraituz, kalera irten eta sutan traste zaharrak erretzeaz batera urteko pasarte txarrak ahaztu eta sutara botatzeko aukera paregabea izan genuen.

Asmo horrekin eta batez ere ondo pasatzeko gogo betez, guraso talde batek prestaturiko sardina eta txorixo usaia plazan zehar barreiatu ahala, herritar multzo andana gerturatu zen. Egiten zuen beroarekin ederki sartu zitzaigun sagardo freskoa.

Gaueko 10ak aldera San Juan sua piztuta zegoela eta albo-karen soinuak lagun genituela, herriko dantzariak menditik herrirako jeitsiera antzeztu genuen. Herriko plazara iristean suaren inguruan hainbat dantza burutu genituen, balkarlos, tobera, sorgin-dantza, eta amaitzeko aurrekoa. Ikusitakoa ikusita, badirudi urtean zehar eginiko dantza ikastaroak bere fruituak eman dituela. Aldizkariak ematen digun aukera aprobetxatu nahi dugu txistulariei dantzariokin izandako pazientzia andana eskertzeko, beraiek gabe ez zen posible izango. Musika, dantza eta suak lagunduta giro polita sortu zen eta magiaz beteriko gaua izan zela esan behar dugu. Zer esanik ez, oraingo honetan ere, batzuei gaua amaitu eta eguna bertan argitu zitzaieela, bejondeie!!.

Zinema kalean



Udara garai aproposa izaten da etxezuloa utzi, kalera irten eta ilunabar gauaz disfrutatzeko. Ta zer hobeagorik, herritarrekin elkartu eta zinema gau eder batez kalean gozatea baino. Ez didazue ukatuko ilundu dadin itxaron eta goiko plazan zinema ikustera elkartzeak xarma berezi bat ez duenik; neri behinipen aspaldiko garaia oroitarazten dizkit eta magia apur bat ere baduela iruditzen zait.

Badira sei urte edo, Uztaileko ostiraletan (eguraldiak baimentzen badu behintzat) Itsasondoko goiko plazan zinema izaten dela. Urte guzti hauetan denetarik bitxikeriak gertatu zaizkigu; entzuten ez ziren pelikulak; funditu den proiektorea edo filmaren erdian hasi den ekaitza baina orohar, herritarrak elkartu eta filma eder bat ikusiz une politak pasatzeko aitzakia izaten da.

Saiatzen gara adin guztientzako filmak izan daitezen edo eta haurrentzako bereziki aukeratutako filmaren bat eskuratzen; jakin bai bait dakigu izugarritzko ilusioa egiten diela gazteenei gauetz zinemara etortzeak. Bestetik ahalegintzen gara aukeratutako filma gehienak euskaraz izan daitezen, egunerokoan ez bai dugu aukera gehiegi izaten honelakoak ikusteko.

Aurtengoan "Lorezain leiala", "Safety Lost" (Harold Lloyd-en pelikula mutua), "Ezkutuko plana" intrigazko filma eta "Robots" animaziozko filma ikusi ahal izan ditugu. Egia esan, egindako aukeraketarekin gustura bagaude ere arreta deitzen digu, urtez urte arrakasta gehien izaten duen filma, pelikula mutua izaten dela, gazte eta helduoi irribarreia eta sarri algarra ere aterazten digute filma klasiko hauek.

Udara bere azkenetara gerturatzan ari da eta etxeko txoko goxoak gustora hartzen ditugu gualdera hozten hasten denean; baina gauzak ondo badira datorren urteko udarako egun luze eta gau epelez herriko plazan zinema ikusiz gozatu nahi-ko genuke; ea horrela den.

Oriora irteera

Ekainak 6, goizeko 5etan jarria zegoen hitzordua eta izarak baztertzea kosta bazitzaigun ere bertan ginen denak puntu puntuan, eskertze-koa benetan. Hemeretzi lagunek osaturiko talde-
txo polita elkartu ginen.

Itsasondo atzean utzi eta Berostegi auzoa zeharkatu genuen, bertatik Zumizti baserrira igo ginen eta handik burdin gurutzetako gaina bertan genuen. Gure ibilbidean zehar Santa Ageda eta Bidaniako gainetik pasa ginen eta 10ak alderako Zelatun bistaratu genuen. Bertako bordan arropa lehorra jantzi eta salda, haragi eta txorixo egosiz osaturiko gosari ederra egin genuen, ardoa eta sagardoa ere ederki sartu zitzaizkigun.

Behin Zelatun jaitsi eta Iturrioz auzoa gurutzatu ondoren Aia genuen zain, eta bertako txakolinak duen famari ohore egin nahian txakolin trago batetara gonbidatu zigun Imanolek bere urtemuga aitzaki hartuta. Behin arnasa berreskuratuta Oriora abiatu ginen; 13:30 ak aldera bertan ginen eta ordu ederra zenez bazkaltzeko asmoz Altxerri jatetxera hurbildu ginen. Otordua egin aurretik dutxatu eta aldatzeko aukera izan genuen. Behin guapo-guapo jarrita bazkaltzeko prest ginen.

Bazkalostean autobusak Orioko herrigunera eraman gintuen eta bertako kaleetan barna ibiltzeko aukera izan genuen gaueko 9rak jo bitartean; benetan giro ederra topatu genuela bertan. Eguna luze zihoanez autobusa hartu eta Itsasondora bueltatu ginen. Nahi izan zuenak eguna luzatzeko aukera izan zuen.



Liburuaren txokoa

EL SECRETO

Rhonda Byrne

Idazle, doktore, aholkulari espiritualek eta filosofoek urteetan zehar bildutako eta transmititutako jakinduria dago 224 orri hauetan idatzia. Zer dio liburuak?



Erakarpenaren legearen inguruan hitz egiten du; honela pentsatzen dugun guztia gure bizitzara erakartzen dugu, zerbait lortu behar duzula konbentzitzen bazara ziurragoa izango da lortzea. Ikasi nola egiten den eta zure bizitzako eremu guztietara zabaldu: afektua, lana... Ezagutu sekretua ezagutu zutenak zergatik aldatu ziren: Platon, Newton, Beethoven, Shakespeare, Einstein....

HILKETA SEKRETUA

Agatha Christie

Gwenda beldurtuta dago. Oso beldurtuta. Berak eta bere senarrak etxe polit bat erosi dute Ingalaterrako kostaldean, baina gauza oso bitxiak gertatzen hasi dira.



Etxea zaharbertitzeari ilusioz beteta ekin dion arren, badirudi Gwendak behin eta berriro etxe horren iraganarekin egiten duela topo... are gehiago: badirudi Gwendak bere iraganarekin egiten duela topo. Nola liteke, ordea? Gwenda ez baitzen lehendik inoiz izan Ingalaterran. Eta zergatik sentitzen du halako izua eskaileretatik beheko aldera, etxeko sarrerara, begi-

ratzen duen bakoitzean?

Marple andereñoak Gwendari bere estualditik ateratzen laguntzeko asmo osoa dauka. Baina batak nahiz besteak kemena beharko dute. Izan ere, aspaldi gertaturiko hilketa bat argitu beharra suertatu zaie. Urte askoan lokartuta egon den hilketa bat. Baina hiltzailea ez dago, ez, lotan...

OTTOLINE ETA KATEME HORIA

Chris Riddell

Ezagutu Ottoline Brown eta haren lagunik onena, Munroe jauna. Ez dago kasurik ez gertakaririk haientzat zailegia denik...



Hiri Handian hainbat lapurreta ikusgarri gertatu dira. Altzotxakurrak modu misteriotsuan desgertzen ari dira. Zerbait egin beharra dago...

ZERGATIK JOAN BEHAR DUGU ESKOLARA?


Xabier Kintana

Zergatik joan behar dugu eskolara, zergatik galderak erantzuten laguntzen duen liburua duzue gurasoek. Beste hainbat ere badaude liburutegian.

Irailean eskatzeko liburuak:

Peregrinos de la herejia. Tracy Saunders
Esperando a Robert Capa. Susana Fortes
La mano de Fátima. Idelfonso Falcones
Arrain abisalak. Xabier eta Martin Etxeberria Garro

Kultur Agenda



Iraila-Abendua

- Irailak 12-13-14: Urkiko Jaiak
- Irailak 18-19-20: Iraileko Jaiak
- Irailak 25-26: Garagardo Festa
- Urriak 17: Mountain Bike trabesia
- Urriak 24: Festetako Herri jolasetako bazkaria
- Azaroak 8: Gaztaina bila, mendira irteera
- Azaorak 14: Gaztain jana
- Azaroak 25: Emakumeen tratu txarren aurkako eguna.
- Azaroak 27: Kantu afaria
- Abenduak 12: Talo Festa
- Abenduak 24: Olentzero



Euskararen Astea (Urriak 26-Azaroak 1)

- Urriak 28: Behatokiak emanda, Hizkuntza eskubideei buruzko tailerra.
- Urriak 29: Ipuin kontalaria
- Urriak 30: Itsasondo eta euskara (Ostirala). Itsasondon euskara nola bizi izan den azken urteetan: Euskarazko eskolen sorrera, euskara debekatua zegoen garaia... Bizipen horiek bilduko dituen ekimena.
- Urriak 31: helduentzako antzerkia.

Lehiaketa mundiala

Oporretako argazkien lehiaketa

Opor garaian denok ateratzen ditugu argazki mordo bat eta batzuk ederrak gainera. Bidali iezaiguzu eta afari eder bat irabazteko aukera izango duzu.

* Aurreko alean ez zen saridunik izan.

Anima zaitezte!

Itsasondo2.0@itsasondo.net



!
GOGORARAZTEN DIZUEGU
HURRENGO ALEA ABENDUAN
IZANGO DUZUTELA ETXEAN.

itsasondo^{2.0}

Herriko aldizkaria (((6. zk))) iraila-azaroa 2009



Ale honetan parte hartu dutenak honakoak dira:

Jone Etxeberria Belen Mendizabal **Maite Lasa** Danel Etxeberria **Gorka Martinez** Rosi Noguera
Ainara Urteaga Amaia Aramendi **Alaitz Aierbe** Iker Mendizabal **Luis Aizpuru** Jose Luis Aranburu
Jose Ignacio Rosco Miren Segurola